


# Tlatelolcoko sarraskiaren aitortza



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**M**exiko Hiria, 1968ko urriaren 2a. Hilabete batzuk lehenago, ekainaren 22an abiatutako ikasle mugimenduak mitin bat antolatu zuen Hiru Kulturen Plazan, hiriko Nonoalco-Tlatelolco unitatean. Mexikoko ejertzitoak eta Batallón Olimpia talde paramilitarrak bildutako ikasleei eraso egin zieten.

Mexikoko Gobernuak esan zuen erasoa justifikatuta zegoela, manifestariak izan zirelako tiroka hasi zirenak; 2000. urtean desklasifikatutako dokumentu batzuek agerian utzi zuten tiratzaile haiek gobernuak berak kontratatu zituela. Bestalde, agintariak zenbaki bakarra eman zuten gertatutakoaren balantzea egiterakoan: 1.345 manifestari atxilotu zituzten. Hildakoei eta zaurituei buruzko datu ofizialik ez zuten eman. Duela urte batzuk, Kate Doyle analista politiko estatubatuarrek Mexikoko Segurtasun Artxibo Nazionala arakatu zuen eta 44 hildako dokumentatzea lortu zuen. Testigantzen arabera, ordea, hildakoak 300dik gora izan ziren, eta zaurituak 1.000tik gora.

Duela bizpahiru aste, Tlatelolcoko sarraskiaren 56. urteurrenean, Claudia Sheinbaum presidente berriak, dekretua sinatu zuen Estatuaren izenean biktimei barkamena eskatzeko. Sheinbaumek inbestiduraren ondoren hartutako lehen erabakia izan da, eta lehen aldia da, gainera, Mexikoko Gobernuak sarraskiari buruzko



Ikasleak Mexikoko Hiru Kulturen Plazan bilduta, 1968ko urriaren 2an.

dekretu bat argitaratzen duela: "Mexikoko Estatuaren izenean eta berau ordezkatzeko, politikoki aitortzen dugu 1968ko urriaren 2an ikasle mugimendu heroikoaren aurka gobernuak egindako indarkeriazko ekintzak gizateriaren aurkako krimenak izan zirela", dio testuak.

Sheinbaumek esan zuen bera ere "68ko alaba" dela, amak urte hartako protestaldietan parte hartu omen zuela-

ko, eta sarraskiaren ondorioz sortu zen gizarte mugimenduak eragin handia izan omen duelako bere karrera politikoan.

Urriaren 2an nahiz hurrengo egunetan milaka atxiloketa egin zituztela esan du, eta horietako asko torturatu edota desgerrarazi zituztela. Eta, azkenean, testigantzek esandakora hurbiltzen den hildako kopuru ofizial bat ere eman du: 325, gutxienez. ●

## Beste hainbeste geoglifo Nazcan

Yamagata unibertsitateko Masato Sakai arkeologo japoniarra buru duen ikerlari talde batek geoglifo ugari aurkitu berri ditu Nazcako basamortuan (Peru). Guztira 303 geoglifo topatu dituzte, orain arte ezagutzen zen geoglifo kopurua ia bikoiztuta. Horretarako adimen artifiziala erabili dute ikerlariak.

Orain arte ezagutzen ziren irudiak aurkitzeko hainbat hamarkada behar izan dituzte; aldiz, teknologia berriei es-

ker, ia beste hainbeste aurkitu dituzte sei hilabeteetan.

Gainera, sorta berri honi esker 2.000 urte inguru dituzten irudi hauetan bi tipologia bereizi ahal izan dituzte: orain arte ezagutzen zirenak geoglifo erraldoi linealak ziren; orain aurkitutako gehienak txikiagoak dira eta erliebean eginak daude.

Orain, irudien esanahiari eta helburuari buruzko hipotesi berrien txanda da. ●

